

L. MITXELENA euskaltzainak :

" ... "Yakin"eko gazteei. Beren asmoa ezin-obeia iruditzen zait: asmoa ez ezik, baita asmo ori mamitzeko ateratzen asi diren aldizkariaren leen zenbakia ere. Nere ustez lan politak dira denak eta batzuren batzu biziro egokiak, bai gaiaren aldetik, bai erabilzterako moduari dagokionez.

Asmoaz zer esan? Diteken onena dala. Gai orietan - eta pozik ikusi dut eztituzutela estu mugatu- orko ta beste-tako teologilariak dituzten kezka eta jakitea euskeraz ematea baiña gauza oberik ezin zitekean egin. Sail ori, urrutixegotik bada ere, gogoko dugu gaiñera eskola piska bat dugun gaiñerako euskaldunok. Zorionak, beraz, biotz-biotzetik, eta eskerrik asko. Guziori mesede andia egingo diguzute... Lanen bat ori bezain egokia eta ederra denean, eztago ori esatea bestrik. Zertarako luzatu?".

ZAITEGI jaunak :

"... "Yakin" irakurria dizut pozaren pozez. Oiek, bai, gazte ederrak! Gai sakonenak eta zailenak euskera zoragarri eman dizkigute. Orrela iarraitzekotan, atzean utziko gaitute gazteol alabearrez. Iaso bezate nire euskal-agurrik gartsuena ta nire zorionik laztanena. Zuen alegin ederrez eta zuen buru-biotz argiz euskera goieneko mailalara iasoko duzue guzian biotz-bategarri. Gaztetan ernerazten dira gero-rako asmorik bikaiñenak eta erabakirik emankorrenak. Udabefiz loretan dagon zugaitzak igali ederrik ekarriko digu uztaroan eta amets txanbelinez gogoak beterik eta okiturik bizi diran gazte eraginek emango ditu zitu, garerdiko edo garako gizon gertaraztean. Aurrera, ba, baikor eta kementsu! Itsasoan barrena eguzkia sartzen ikusten degunok agur egiten dizuegu biotzez, eguzkia mendi-tontofetatik gora sortzen birloraturik so egiten duzuen gazte aberkide bikaiñ oriei!"...